

Aretxagazeta

Aretxabaleta • 1996ko apirilak 25 • 97.zka. •


FELIS BELTRAN DE HEREDIA
ANDRA MARI 7-2. EZK.
ARETXABAleta

Gregorianoak arrakasta

Aurrekontuak onartu dira

Otala-zelaiko XVIII. krossa

Egoitzak 10 urte



Beren kontura lan egiten dutenentzat.

NEC telefono mugikorra doan mailegu edo leasinga formulatzeagatik.



Kontu Profesionala.

Eskerrak norbait oroitzen den beren kontura lan egiten dutenekin.

Euskadiko Kutxak beren kontura lan egiten duten profesionalen finantza-beharrak sakon aztertu ditu. Eta erantzun ausarta eta eraginkorra eman die zerbitzu oso eta berezi baten bidez. Kontu Profesionala. Finantza Entitate bati eskatuko zeniokkeen guztiarekin.

Orain, dirua gogor lan eginda irabazten ikasi duzun horrek, finantza aholkularitza fiskal eta finantzarioan aditua den talde baten laguntza duzu.

- Hasteko, interes handiagoa kontu korrontean. % 5,5*rainoko UTB.
- Zorpekoak % 15eko interes nominalean (% 15,87ko UTB).
- Aholkularitza Fiskala doan, telefono-zerbitzu baten bidez: 8:00etatik 22:00etara 901-333 444an.
- Gaixotasunagatik Baja Asegurua** merkatuko antzekoak baino % 25eraino merkeago.
- Zure proiektuen finantzaketa, baldintza bereziko Kreditu linea baten bidez.

Eta gainera beste abantaila batzuk:

Autonomoetako Ordainagiria helbideratzeagatik, Visa Clasica Txartela doan Kontu Profesionalaren titular zaren bitartean edo Visa Oro lehen urtean doan.

Pentsio -edo Aurrikuspen- plan bat irekitzearen:

- 5.000 pezetako lehen ekarpena Euskadiko Kutxaren kontura.
- 3.000.000 pezetako Istripu Asegurua***, kosturik gabe lehen urtean.

Zure kontura lan egiten baduzu, jakin dakizu zenbat izerdi bota behar den dirua irabazteko. Orain, ikas ezazu dirua estimatzen. Ireki ezazu Kontu Profesionala Euskadiko Kutxan.

Informa zaituz Euskadiko Kutxaren Sukurtsaletan, goizez nahiz arratsaldean. Edo 901-333 444an, gaueko 10ak arte.

* Ordaindu gabeko eguneroko gutxienezko saldoa 150.000 pezeta. Kopuruaren araberako ordainketa. UTBren adibideak: 250.000 pezetarekin % 1,6. 500.000 pezetarekin % 2,8. 1.000.000 pezetarekin % 3,82. 5.000.000 pezetarekin % 5,5.

** Aegon, S.A. Aseguruetearekin kontratatuta.

*** Euskadiko Kutxa Taldeko Lagun Aro, S.A. Aseguruetearekin kontratatuta.

Telefonoa onartzeak linea kontratatzearen konpromisoa du barne. Promozio hauek 1996ko maiatzaren 31 arte iraungo dute.



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Egoitza batera joango zinake?

Txaro Uriarte
(*Etxeakandrea*)

Nahiago nuke ez joatea baina tokatu ezker edo eta oso txarto egon ezker... Nire gurasoak etxean daude oraindik eta ez dut pentsatzen egoitzara eramaterik.



Francisco Migel
(*Langilea*)

Bai, bai joango nintzateke, ez dit inungo bildurrik ematen. Gehienbat seme-alabei trabarik ez ematearren joango nintzateke.



Jabier Etxebarrieta
(*Langilea*)

Zisko eginda egon ezker bai bestela ez nintzateke joango. Neure burua zaintzeko gai naizen bitartean ez behintzat.



Santiago Lonbide
(*Jubilatua*)

Bai, bakarrik gelditu ezker joango nintzateke. Hemengo moduko egoitza batera gainera joango nintzateke baina oraindik ez dut asmorik.



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultur sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako



ESKUTITZAK

BERBARI HITZARMENAK URTEBETE

BERBARI hitzarmena sinatu zenetik urtebete pasatu denean urteko balantzea egiteko ordua dela uste dugu. Euskararen Erabilera bultzatzeko hitzarmena Aretxabaletako 26 taldek beren borondatez hartutako konpromezua izan zen.

Denboraldi honetan emaitza onak lortu direla esan daiteke, euskararen erabilera gehitu delako talde hauetan edo beste zenbaitetan jarrera aldaketa somatu dugulako. Hala ere, oraindik badago non eragin, batez ere, erabilera hau ez delako oraindik ohitura finkatu.

Ezin da pentsatu, inolaz ere, talde guztiak egoera berdinean aurkitzen direnik, hasieran ere ez baitzeuden hizkuntza egoera berdinean. Talde bakoitzaren egoera aztertu ondoren konpromezu mailakatuak diseinatu genituen A, B eta D hitzarmena. A litzateke konpromezu baxuena eskatzen duena B erdikoa eta D altuena. A hitzarmena sinatu zutenek euskarari atek zabaltzen joango diren konpromezua hartu zuten. B hitzarmenekoek euskararen presentzia gaztelaniaren bestekoa izango zela ziurtatzen zuten eta D hitzarmena sinatu zutenek lehentasuna euskarari emango diotela. Hala ere, esan beharra dago talde guztiak ez zirenez egoera berean aurkitzen konpromezuak eskatzeko orduan malgutasunez jokatu izan dugula eta talde bakoitzari egokituatko konpromezu zehatzak eskatu izan dizkiegula.

Ahozkoari dagokionez, berriz, pentsa daiteke gauzak zailagoak direla bai erabilera neurtzeko orduan bai jarraipena egiterakoan. Beraz kasu hauetan taldeak antolatutako aktibitateetan eta euskara arduradunak esandakoarekin fidatu izan gara.

Karta honen bidez dana azaltzea ezinezkoa zaigunez, eguenean, hilak 25 arratsaldeko 7retan Loramendi euskera elkartearen lokalean izango den batzar orokorrera gonbidatuta zaude.

Miren Iriondo
Berbari Hitzarmenaren koordinatzailea

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Josu Urkia.
Erredakzio-kontseilua: Imanol Aginagalde, Miren Eraña, Arantzazu Abasolo, Ines Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Ana Eriz.
Publizitate eta erredakzio arduraduna: Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Loramendi K.E., Udala, Mikel Arroiabe, M. J. Aretxaga, Gorka Etxabe, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94.
Aretxagazeta ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Aretxagazeta

1996ko apirilak 25 - 3. orr.



Kalitatea eta kantitatea nagusitu ziren Murrukixok antolatutako argazki lehiaketan

□ Joseba Egibar atxabaltarrak irabazi zuen lehenengo saria

Apirilaren 19an udaletxeko ganbaran egin zuen Murrukixo Mendi Elkartek aurtengo IX. argazki lehiaketako sari banaketa. Guztira 58 lagunek parte hartu zuten lehiaketan iaz baino 6 gehiagok eta danera 202 lan aurkeztu ziren, hoietatik 4 herrikoak.

Aurtengo lehiaketa honetatik bai argazkien kantitatea eta baita kalitatea ere azpimarratu beharra dago. Murrukixoko arduradunen esanetan kalitate haundiko lanak aurkeztu dira.

Epaile lanetan, gaian adituak diren pertsonak aritu dira: Manolo Urtubi, Pedro Zugasti eta Fernando Uribealzo.


Hor dituzue gai askean saria jaso zuten lehenengo hiru argazkiak. Lehenengo saria Joseba Egibar atxabaltarraren argazkiak jaso zuen. 2.a Iñaki Delgado Larrañaga



1.go saria

donostiarraren argazkiak eta 3.a Jesus Alonso Arranz brinkolarraren argazkiak. Mendiaren inguruko argazki atalean barriz 2 sari izan ziren. Irabazleak ondorengoak: 1.go saria Javier Pedro Fernandezek (Berango) irabazi zuen; 2.a Benito Canterok (Bergara). Herriko onenaren saria Iñaki Galdosek eskuratu zuen.

Aurkeztutako argazki onenekin liburuzka bat atera du Murrukixo Mendi Elkartek eta apirilaren 19tik 26ra bitartean argazkiak erakusgai izango dira Aretxabaletako udaletxeko ganbaran.




Joseba Egibar - Aretxabaleta



2. saria - Iñaki Delgado (Donostia)

*Argazkiak
apirilaren
19tik 26ra
bitartean
erakusgai
daude
udaletxeko
ganbaran*



3. saria - Jesus Alonso (Brinkola)

**AMETS
TABERNA**

Iparragirre, 4
Tfnoa: 79 01 29
Aretxabaleta

ARGAZKIAK

UrKiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA



**HAIZEA
AKEITEGIA**

Mitarte kalea, Z/G
Tfnoa: 79 85 57

Onartu dira aurtengo aurrekontuak

Apirilaren 18an egin zen plenoan onartu ziren aurtengo udal-aurrekontuak. EA, EAJ eta PSEren aldeko botuekin onartu zen aurrekontua, HBk bere desadostasuna erakutsi zuen. HBk, alkatetzatik libe-ratzea proposatzen den per-sona eta honen betebeharreko funtzioen aurrean zenbait desadostasun azaltzen zituen. HBn adierazpenetan pertsona horrek ez du euskera menpe-ratzen eta udalaren ordezkari lanak egingo dituen pertsona batentzako baldintza ezinbes-tekoa ikusten du euskera men-peratzea. Bestetik, pertsona horren betebeharrak liberatu batenak ez zirela adierazten zuen, teknikari batenak baino.

755 milioi

Aurtengo Udalaren aurre-kontu propioa 755.726.286 pezetatakoa da eta hau beste urte batzutan ez moduan area-ka banatu da aurten. Horrela, hirigintzan (123 milioi), obretan (159 milioi) eta oga-sunean (117 milioi) gastatuko litzateke aurrekontuaren zati haundi bat. Urats-Gain egoi-tzaren aurrekontua aparte doa eta hau 57.209.392 pezetakoa da.

Udaleko gobernu barriaren helburuetariko bat zorpetzea gutxitzea izan da eta iazko

urtetik kopurua gutxitzea lortu da. Iazkoa % 13,93koa izatetik % 11,47koa izatera pasatu da.

Partida barriak

Aurtengo aurrekontuan sartu diren partida barriak honakoak dira besteak beste: 64 milioi pezeta emango zaio kirol batzordeari grada eta aldageletarako; 22 milioi udaletxearen almazena izango dena erosteko; 19 milioi 28 eta 30 sektoreak bananduko dituen bialerako; 15 milioi Arkarazo eta Boliñako ur hornikuntzarako (horrela herriko auzo guztiak hornituta geldituko lirateke); 10 milioi 27 eta 28 sektoreen horni-kuntza eta garbitze planerako; 3 milioi garapen industria-laren elkarte baten erake-tarako; 2 milioi kulturarako, musika eskolako emergen-tziako eskilara erakitzeko eta 150.000 pezeta inguru-giroaren kontzientziazio kan-pinarako.

Balorazioa:

Juan Antonio Rodriguez alkateak aurrekontuen balo-razio baikorra egin zuen ple-noaren bukaeran. Bere ustetan akordio honetara iristeko adostasun maila haundia lortu da eta prozesu zabala izan dela adierazi zuen.

Udalak bere aurrekontuan onartu dituen gastuak:

- Ongizate saila	67.537.728
- Ingurugiroa	5.784.830
- Garapen ekonomikoa	14.558.946
- Kirolak	94.937.197
- Kultura	44.456.038
- Kontsumoa	600.000
- Heziketa	33.656.560
- Normalizazio linguistikoa	20.215.281
- Hirigintza	123.965.534
- Obrak	159.744.869
- Nekazal-guneak	18.674.228
- Ogasuna	117.926.527
- Idazkaritza-pertsonala	24.601.526
- Presidentzia	13.952.084
- Udaltzaingoa	15.114.938
GUZTIRA	755.726.286

Udalak izango dituen dirusarrerak:

- Zuzeneko zergak	97.618.033
- Zeharkako zergak	30.000.000
- Tasak eta bestelako sarrerak	219.355.667
- Trasferentzia arruntak	307.709.137
- Ondare-sarrerak	2.501.120
- Inbertsio errealen besterenganaketa	48.289.777
- Kapital trasferentzia	50.252.552
GUZTIRA	755.726.286

GEMES

- Depilazio definitiboa
- Makilaia
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18
Aretxabaleta

Izozkitekigozotegia IZOZKITEGI

Otalora, 11
Tfnoa: 79 93 58
ARETXABALETA

LEIBAR

ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA



UDAKo lehendakari ohiek osatutako batzardea ibili da 50. urteurreneko ekintzak antolatzen

UDAK, urrezko ezteiak

□ UDAko historia jasotzen duen liburua argitaratuko da

Aurten 50 urte betetzen dira U.D.A., Aretxabaletako kirol elkar-
tea sortu zenetik. 1946. urtean ekin
zion U.D.Ak kirol ekintzak anto-
latzeari eta 50 urte hauetan 19
lehendakari izan ditu.

Joan den apirilaren 17an bere
urrezko eztei hauen aurkezpen
ekitaldia egin zen. Bertan U.D.A.
barruan egon diren eta dauden kirol
elkarte desberdinen historiaren
nondik norakoak aipatu ziren:
futbola, pelota, mendia, txirrin-
dularitza, atletismoa, eskubaloia eta
saskibaloia hain zuzen ere.

Ekintza desberdinak

50. urteurrena antolatzeko 1995.
urteko azaroan U.D.A.ko lehen-

dakari ohiekin osatutako batzardea
eratu zen.

Ospakizun hauen ekintza nagusi
moduan urte amaiera aldera
UDAKen historia kontatzen duen
liburuaren aurkezpena egingo da
Zaraia zineman. Ekitaldi honetan,
elkartearen inguruan egindako
lanagatik omenaldia jasoko dute
hainbat lagunek. Argitaratuko den
liburua, 200 orrialdez eta 100
argazkiz osatutakoa izango da eta
1000 ale kaleratuko dira.

Ekitaldi nagusi honez gain, kirol
bakoitzerako ospakizun bereziak
antolatu dira. Oraindik ere ekitaldi
guztiak guztiz zehaztu barik daude
baina hona hemen kirol des-
berdinetarako pentsatuta dauden

ekintzak: mendiarri dagokionez,
ekainaren 9an, aterpearen eguna
egingo da Leizargaraten. Irailaren
8an, Kurtzebarri eguna eta
azaroaren 10ean Aretxabaletako
inguruak ezagutzeko irteera.

Txirringularitzaren inguruan,
Aretxabaletako herri barruan Open
deritzon kriteriuma antolatuko da
20 txirringulari profesionalekin eta
10 afizionatuekin. Froga hau
urriaren erdialdera ospatuko da.

Pelotan, 4 1/2 barruko kanpora-
keta antolatzeko asmoa dago urria
alderako.

Atletismoan, azaro aldera kross
herrikoia antolatzea gura da. Aret-
xabaletako kaleetan zehar egingo
litzateke eta kategoria guztiak
izango lirateke bertan.

Azkenik futboleant, lehen maila-
lako taldeen partidua jokatu da.
Dagoeneko 4 futbol talderi egin
zaie gonbidapena: Erreala, Va-
lencia, Athletic eta Alaves-i. Lau
talde hauetatik bik baietza emango
dutela uste da. Partidu hau abuz-
tuaren bukaeran jokatu da eta
bertan Ibarra futbol zelaiko alda-
gelak eta eserlekuak inauguratzea
gustatuko litzaietxe antolatzailerei.

Ibilaldi neurtua

Mendiko ekintzei dagokienez
joan den apirilaren 21ean Murrux-
kixo eta Zaraia Mendi taldeek 50.
urteurren hauei lotutako ibilaldi
neurtua antolatu zuten. Almen eta
Kurtzebarri eskolako 60 bat neska-
mutikok plazan hasi, eta Apotza,
Asensio eta Isurietatik buelta egin
ondoren herriko plazan amaitu zen.
Bukaeran oparitxo bana jaso zuten
partaideek.

TXAKOLI
a
b - Pintxoak
e - Kazuelak
r - Pulpo espezialitatea
n
a
Andra Mari Auzunea
Tfnoa: 79 02 25
ARETXABALETA

DON
Pelikularik
hoberenak
Lezama Merkatal zentrua
ARETXABALETA
BIDEO


**AZKENA
TABERNA**
Solohaundi, 8 ☎ 79 74 57

Larrain dantza ikastaroa

Loramendi Euskera Elkarteko Tril emakume taldeak Larrain dantza ikastaroa antolatu du. Bi hilabetetan zehar luzatuko da maiatzaren 2an hasi eta San Juanak arte. Dantza taldearen lokalean emango da eguazten eta eguakotxetan 8etatik 9,15etara. Parte hartu ahal izateko Loramendiko lokalean izena eman beharko da, bazkideek 2.000 pezeta ordainduz eta bazkide ez direnek barriz 2.500 pezeta. Apuntatzeko apirilaren 30a baino lehenago egin behar da Loramendiko lokalean edo eta 77 09 70 telefonora deituz.

Jakoba Errekondoren liburua salgai

Loramendi euskara elkar-tearen lokalean Jakoba Errekondoren liburua salgai dago. Liburuaren izenburua: "Etxe barrurako landareak". Prezioa: 1.750 pezeta. Gogoratu Jakobak barruko landareen inguruko hitzaldia eman zuela Loramendiko lokalean.



elkarri-ko tailer barria martxan da herrian

Elkarriren tailer barriaren aurkezpen ekitaldia egin zen apirilaren 18an. Elkarriko kidea den Jonan Fernandezek Elkarriren inguruan zabal berba egin zuen eta Juanjo Perezek, hau ere Elkarriko partaidea, tailer barria sortzearen arrazoiak aipatzen zituen. "Orain hiru urte beste tailer bat sortzeko saiakera egin zen baina arrazoi desberdinengatik desagertu egin zen. Badakigu herrian lagun dexente dagoela Elkarriren ideiekin bat datorrena eta ideia honen inguruan lan bateratu bat egitea da asmoa". Jonan Fernandezek adierazpenetan, herri mailan lan egitea da talde barri honen helburua. Iniziatiba desberdinak, pluralak, eraikitzaileak batu eta bakearen aldeko borrokan prozesu bat bultzatzea. "Elkarrizketa eta akordioaren esperientzia gizarte osora zabaldu behar da eta elkarrizketa martxan jartzeko beharrezkoa da gisa mugimendua". Elkarriren tailer barria martxan da herrian eta ostegunetan arratsaldeko 8,30 etan egiten dituzte bilerak kultur etxean.

Jai batzordeak bi bilera egin ditu

Herriko koadrila eta udaletzeko kulturako arduradunek bi bilera egin dituzte dagoeneko. Egia esan, herriko 100 bat laguni bidali zitzairen eskutitza eta hoietatik 15 bat koadriletako partaideek parte hartu dute. Baina bileretan partaidetza hain haundia izan ez arren, ideia berri asko eta interesgarriak irten ziren. Ojala-zelai eguna antolatu dute dagoeneko eta Andramaixak ere antolatzen ari dira. Hurrengo bilera datorren maiatzaren 14an egingo da.

Markole eta Belorrieta kale barrien izenak

Dagoeneko onartu da Ibarra berriko eta Araba Ibilbideko tartean egiten ari diren etxebizitzaren gunearen izena zein izango den. Alde batetik futbol zelaiko etxe barriek Markole izena izango dute, garai batean Markole baserriko lurrak bertan zeuden eta. Bestetik, Araba Ibilbidearen tartean egiten ari diren bloke barriak Belorrieta izena izango du, aintzina bertan zeuden lurrek izen hori zeukaten eta.


MAPFRE
 Aseguroak
 Errekaabarren, 3
 Tfnoa: 77 11 76

OSKAR GARAJEA
 Basabe Poligonoa, A-2-4
 Tfnoa: 79 98 74
 ARETXABALETA


MITARTEGARAI
Jatetxea
 • Nekazalutismo etxea
 • Bertako sukaldaritza
 Arientza auzoa • Tfnoa: 79 17 51
 ARETXABALETA


EZKUTU
 TABERNA
 Mitarte kalea, 17 • ARETXABALETA • Tfnoa: 79 00 00


URBALTZ
 TABERNA
 Mitarte, 21 behea
 Tfnoa.: 79 79 79
 ARETXABALETA



Aurtengo apirilaren 26. egunean beteko dira 10 urte, historiako katastrofe ekologikorik haundiena gertatu zenetik. Momentu hartan indar nuklearraren erabilera kuestionatua izan bazen ere, zentrale nuklearrek oraindik lanean dira.

CHERNOBYLgo EZTANDAREN 10. URTEURRENA

1986ko apirilaren 26. egunean historiak ezagutu duen katastrofe ekologikorik haundiena gertatu zen. Egun horretan Chernobyl zentrale nuklearrereko laugarren erreaktoreak eztanda egin zuen Bielorrusiako errepublika osoa, Ukraina osoa eta Errusiaren mendebaldea (guztira 130.000 km²) hauts erradiaktiboz estali zituelarik. Eztanda honen potentzia, konparazio batera, Hiroshima eta Nagasakiko bonba atomikoak batu eta oraindik ere 200 aldiz haundiago izan zen. Bost egunetan zehar erreaktorea sutan egon ondoren, altzairuz, boroz eta hondarrez estalita utzi zuten. Gobernuak hasera batean zabalduriko datuen arabera 31 hildako aipatzen bazen ere, jakin izan da 500 izan zirela egun haietan hildakoak, eta 10 urte pasa direnean, 10.000 izan daitezke eztanda horren ondorio zuzenez gure mundu zoragarria utzi dutenak.

Zentraleko gainerantzeko hiru erreaktoreek ezer pasa izan ez balitz bezala jarraitu dute lanean hamar urte hauetan, eta sarritan berauek geldi zitezela eskatu den arren, Ukrainiako gobernuak ez du onartu 5.000 lanpostu galduko zirela argumentatuz.

Chernobyl ingurua ez da 10 urte hauetan asko hobetu. Oraindik ere erradiaktibitate haundia dago bertan, hamar urte pasa diren arren, eta *Dnieper* ibaiaren bidez izen bereko lakura jeisten dira hauts erradiaktibo hauek. Kontutan izan behar da laku hau

Denborak sendatzen al du dena?


dela Kiev hiriko biztanleek duten ur erreserba nagusia.

EUSKAL HERRIA ERE ARRISKUTAN

Gure herriak bizi izan duen garaipen ekologikorik haundiena, **Lemoizko zentrale nuklearraren** eraikuntza gelditzea izan zen. Dena dela mehatxu nuklearra ez dugu erabat baztertu, gugandik oso gertu, lanean dirauen Espainiako zentralerik zaharrena baitaukagu, **Central Nuclear de Santa María de Garoña** hain zuzen ere. Aurten 25 urte bete ditu eta oraindik ere proroga berria eskuratu du.

Zentrale honen segurtasuna zalantzan ipintzeko modukoa da. Materialeen akatsak eta korrosio intergranularrak direla kausa, 1977, 1980, 1984 eta 1985/6 urteetan geldialdiak izan zituen. Baina bonbazoa 92-an etorri zen, urte horretako ekainaren 23 arte, programatu gabe zeuden bost geldialdi izan zituenean.

Bestetik, Euskal Herriak badu beste erradiaktibitate fokorik ere. Hauetako bat **lindane** deritzon hauts erradiaktiboa da. Hauts hauek tratatzeko dagoen zailtasuna dela eta, hiru segurtasun zelda eraikitzeke proiektua dago, hirurak Bizkaia aldean. Dena dela, bertan ez da gordeko Euskal Herrian zehar barreiatu dauden hainbat zabortegietako lindanerik. Zabortegi hauetako bat Arrasaten bertan daukagu.

 Mikel Arroiabe

Jauregi Okindegia

Otalora, 10
Aretxabaleta

INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK



Mitarte, 23 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 96 66
Fax: 77 10 33



ESTANKOIA
Tabakoa eta
ikasmateriala
Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

LASA AGUILERA

Aholkularitza

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 79 29 26
ARETXABALETA

SAGASTA

ELEKTRIZITATEA

Elektragailuak
Elektra-instalaketak
Otalora, 14
Tfnoa: 79 16 10



Lurrindegia Opari-denda
Mitarte, 18 ☎ 79 38 59



Gregorianoa modan Estatu Batuetan

□ 15.000 entzuletik gora izan dituzte emandako 15 kontzertuetan

Estatu Batuetako ekialdeko hainbat hiritan zehar itzulia egin ondoren nekatuta baina pozik etxeratu ziren gregoriano taldekoak.

Markus Productions enpresak eskatuta martxoaren 27an Estatu Batuetara abiatu zen atxabaltarrez eta gasteiztarrez osatutako taldea. 17 egun egin dituzte bertan eta Estatu Batuetako hiri desberdinetan 15 kontzertu eskaini, hoiere artean: Chicago, Milwaukee, Washington, Baltimore, Wilmington, Philadelphia, Harrisburg, Garden City, New York Manchester, Boston eta Hartford.

Arrakasta handia

Ismael Fernandez de la Cuestak zuzentzen duen taldeak arrakasta handia izan du Estatu Batuetan. Bertako telebista eta prentsa desberdinetan izan du oihartzuna eta kontzertuak eman dituzten lekuak ere jendez gainezka egon dira. Nueva York-eko katedralean esaterako, 2.500 lagunengain kantatu zuten.

Guztira 15.000 lagun inguru hurbildu da eman dituzten kontzertu desberdinetara eta 3.000 pezeta inguru balio zituzten sarrerek. Estatu Batuetan modan dagoen musika da gregorianoa. Orain dela urte batzuk Siloseko fraileen diskoak arrakasta handia izan zuten bertan eta oraingo honetan bizi-bizian ikusteko eta entzuteko aukera izan dute. Gregorianoa ezagutzeko jakinahia eta musika berri eta desberdin bat probatzea izan daitezke arrakasta honen arrazoiak.

Bertako antolatzaileak ere oso pozik gelditu ziren kontzertuek izan zuten erantzunaz. Beraiek uste zutena baino arrakasta handiagoa lortu zen.

Angel Barandiaran Aretxa-

A couple of big concerts come around this weekend in fields not as different as you might think

Gregorian Chant Choir of Spain plays St. Thomas the Apostle Church, West Hartford, tonight at 8. Tickets: \$18.50 and \$24.50. Information: 525-4500.



Gregorian Chant

Foundation of all Western music

Influenced Monks

Latest hit album "Chant"



Bob Dylan plays Palace Theatre, New Haven, Sunday at 8 p.m. Tickets: \$30 and \$35. Information: 789-2120.

Bob Dylan

Foundation of literary rock lyrics

Influenced Monkees

Much of hit album "MTV Unplugged"

Estatu Batuetako hainbat komunikabideetan agertu ziren gregoriano korokoak. Hoiere artean Iñaki Agirrek "Pitik" izan du arrakasta, bere aurpegia egunkari guztietan ikus zitekeen eta baita egunkari bateko portadan ere. Benetako fraile itxura hartuko zioten amerikarrek. Beste egunkari batean gregoriano korua Bob Dylan-ekin konparatzen zuten. Bi kontzertuak konparatzen zituzten eta antzekotasunak zeintzuk ziren ekartzen zituen egunkariak. (Horra hor goiko argazkian konparaketa).

baletako abesbatzako zuzendaria oso pozik agertu da egindako itzuliaz. "Oso esperientzia polita izan da. Horrelako aukerak ez dira sarri izaten eta Aretxabaleta moduko herri batek horrelako proiektu batean parte hartu izatea gauza handia da. Gainera kontzertuak eman ditugun hiriak kultura eta musika maila altua duten hiriak izan dira, Chicago, Philadelphia, Boston, e.a".

Jabier Markosek taldeko beste partaide batek oso eritzi baikorra egiten zuten itzuliaren inguruan. "Elitezko pertsonak moduan ibili gara eta oso ondo antolatuta zegoen dena. Janari aldaketa dela eta arazoak izan genituen. Oso talde jatorra osatu dugu eta tirabirarik ez da egon gure artean. Beste kultura desberdin bat ezagutu dugu eta hemen zelako ondo bizi garen konturatu gara".

Bitxikeriak

Gizonezkoen ahotsarekin batera Mariatxenek ere abestu zuen 3 kontzertutan, jendea benetan txundituta gelditu zen eta gogor txalotu zuten ekitaldia.

Chicagon zeudela orkatilarainoko edurra egin zien baina hala ta ere kontzertua arrakastatsua izan zen.

Bueltan aeroportuan zeudela hegazkina ordu batzuk atzeratu egin zen eta tarte horretan batzuk aerobica egiten hasi ziren eta kantuan beste batzuk. Halako batean lagun mordo batek inguratu zituen kantuan ari zirenak.

Baina jakin dugunez, gizonezkoen helburua kantatzea eta neurria ematea izan bada ere eurekin joan diren emakume eta neskena Visa txartela erabiltzea izan da. Astindu ona eman ei diote batek baino gehiagok.

Gero eta gehiago esaten da adineko pertsonak bere giro sozialean mantentzea dela egokiena. Baina hau ez da beti erraza izaten, kasu askotan familiak edo berak ez du egoitza batean sartzea beste aukerarik ikusten. Zaharrendako egoitza baten beharra ikusita orain 10 urte Urats-Gain egoitza zabaldu zen gure herrian. 1986. urteko apirilaren 19an 3 egoiliarrekin inauguratu zen. Gaur egun 24 lagunendako lekua dago eta plaza guztiak beteta daude.

10 urte hauetan aldaketa asko izan ditu Urats-Gain egoitzak. Begoña Arenazak, Urats-Gain egoitzako lehenengo zuzendariak, ondo gogoratzen ditu hasierako urte haiek. *“Denok denetik egiten genuen, izan be, garbitasunekoak, sukaldekoak eta ni bakarrik geunden egoitza zabaldu zenean, ez zegoen auxiliarrak”*. Pertsonal falta zen hasierako urte haietako arazo larrietakoa. Orain oster, langile gehiago daude: zuzendariak gain, 6 auxiliar, beste hiru ordezko lanak egiten dituztenak eta sukaldari eta garbitasun lanetan aritzen direnak.

INFRAESTRUKTURA, ARAZO LARRIA

Baina pertsonal arazoa hobetu bada ere, egoitzaren infraestruturak da orain arazo larriena. Aintzine



Egoitzak 10 urte

Mendiak, egoitzako zuzendariak adierazi digunez, egoitza hotel baten moduan eginda dago, gai diren pertsonak atenditzeko eta momentu honetan elbarrituak ere badaude. *“Arazo haundia dugu alde horretatik egoitza ez dago eta elbarrituentzako egokitua eta hauek beste egoitza babestu batzutarra eramatea gogorra da”*. Izan ere, egoitzako proiektua gai ziren zaharrendako egin zen baina denboraz zenbait egoiliar elbarritu egoerara iritsi da. Hori dela eta Aintzinek ez du konponbide garbirik ikusten, poliki-poliki gauza batzuk aldatu badira ere. *“Hasiera batean bainu normalak ipini ziren, gaur egun bainu geriatrikoa daukagu. Baina igogailuan esaterako kamila ez da sartzen eta gaixoak eta hildakoak zutik edo jarrita jeitsi behar izaten ditugu”*.

ATXABALTARREK LEHENTASUNA

Egoitzan dauden egoiliar gehienak atxabaltarrak dira, elorriotar eta azkoitiar bat izan ezik. Hoiere artean 13 emakume eta 12 gizonezko. Juana Arranz da zaharrena 93 urtekin; gazteena barriz 63 urte dituen Jose

Zubiaur, “Bizkai”. Sartzeko eskatzen diren baldintzak 65 urtetik gora izatea eta atxabaltarra izan edo eta 3 urte baino gehiago herrian enpadronatuta egotea da. Baina egoitza zabaldu zenean plazak betetzen ez zirela ikusita kanpoko jendea hartu zen eta baita adina betetzen ez zuten banaka batzuk ere.

“Hasiera baten atxabaltarrek dute egoitzan sartzeko lehentasuna baina plazak libre egongo balira orduan kanpotarrek sartzeko aukera izango lukete. Momentu honetan 7 lagun daude egoitzan sartzeko etxoiten eta guztiak atxabaltarrak dira”, argitu digu Aintzinek.

EGOITZARA SARTZEKO BIDEA

Hasiera baten egoitzan sartzeko eskaerak egoitzan bertan jasotzen baziren ere, gaur egun udaletxean egiten dira. Begoña Arenazak udal-tereko gizarte laguntzaileak adierazi digunez, adineko asko kexatu izan zaie eskaera puntuazioa dela eta baina egia esan Foru Aldundia da azken finean eskaria bideratzen duena eta ez udaletxea askok uste duten moduan. Gipuzkoako egoitza guztiak

konbenio bati lotuta daude eta denak teorian bide berdina jarraitu behar dute. *“Guk eskaerak jasotzerakoan puntuazio bat ematen dugu, etxebizitza zelakoa duen, bakarrik bizi den edo ez, dirusarrerak, e.a. kontutan izaten ditugu. Honez gain, Foru Aldundiko medikuak elbarritu eskalaren arabera puntuazioa ematen du. Ondoren Foru Aldundira bialtzen da eta bertan irtetzen duen puntuazioaren arabera sartzen dira egoitzan”.*

BAKARDADEARI BELDUR

Zahartze prozesua gertatzen ari den gizarte aurreratu honetan gero eta gehiago dira egoitza baten beharrean dauden pertsonak. Bakarrik gelditu izanak edo eta bakarrik gelditzeko beldurak eramaten ditu askotan zaharrak egoitzan sartzera. Arrazoi askok ekar dezakete bakardadea: seme-alabak etxetik joatea, maite duzun pertsonaren heriotza, gizartearen isolamendua, e.a.

Sabina Zugastik 82 urte ditu eta orain dela urte eta erdi sartu zen egoi-

“Bakardadea da gai diren zaharretan egoitzan sartzeko arrazoi nagusia”

tzan. *“Artrosisa sortu zitzaidan eta bakarrik nengoenez egoitzara etorri nintzen. Neure kabuz apuntatu nintzen egoitzan eta egia esan oso gustora nago hemen. Ez zait ezer falta, gainera familikoak ere sarri etortzen zaizkit bisitatzeraz”.* Jokin Irigoien ere ez da egoitzako bizi-moduaz kexatzen. Egoitzan sartzeko arrazoiak bakardadea izan zuen honek ere. *“Ez zait bakardadea gustatzen, beti norbait ondoan izatea hobe. Bakarrik gelditu nintzen eta horregatik etorri nintzen hona, hemen beste ziurtasun bat aurkitzen dut”.*

Gai diren zaharrak bakardadea dute normalean egoitzan sartzeko

arrazoi nagusia eta eurak euren kabuz egiten dute sartzeko eskaria. Urats-Gain egoitzan esaterako 11 alargun eta 13 soltero daude. Elbarrituen kasuan zaharrentzen egoera fisikoari aurre egiteko egoitzak baldintza hobeak eskaintzen ditu eta familiak arazoak izaten ditu zaharra zaintzeko. Kasu hauetan familiak egiten du sartzeko eskaria.

Aintzinen eritziz, bere kabuz moldatzeko gai diren zaharrak oso ondo daude egoitzan. Elbarrituak barriz, ez hain ondo, hauentzako egoitza egokitu barik dago eta. *“Gai diren zaharrak konforme eta gustora daude orokorrean, elbarrituak gehiago kexatzen dira”.*

Bakardadea eta isolamendua nagusi izaten dira zahartzaroan. Baina zahartzaroa bizitzeko beste atal bat gehiago da, haurtzaroa, gaztaroa eta helduaroa izan daitezkeen moduan. Horregatik guk ere etorkizunean bakarrik egon nahi ez badugu gizartea kontzietziatu beharra dago. Zahartzaroa ez da gaixotasun bat bizitzeko beste atal bat gehiago baino.

Nafarroako Errezkinen jaioa dugu Jokin Irigoien. Orain dela 26 urte etorri zen Aretxabaletara. Lana egin beharrak ekarri zuen gure herrira. 1986an alargun gelditu eta egoitzan sartu zen, egoitza zabaldu barri zenean. 10 urte pasatu ditu beraz egoitzan eta oso gustora ei dago.



JOKIN, ZERGAITIK SARTU ZINEN EGOITZAN?

Alargun gelditu nintzen eta seme-alabarik ez nuenez ona etorri nintzen. Andrea eukiko banu ni ez nintzen hemen egongo. Nik neuk egin nuen sartzeko eskaria.

GUSTORA ZAUDE EGOITZAN?

Bai, oso gustora. Norbera ondo egon ezkeron hemen ez da ezer falta. Hau hotela baino hobea da, hotelak izena bakarrik dauka.

ZELA KONPONTZEN ZARA EGOITZAKO LANGILE ETA EGOILIARREKIN?

“Hau hotela baino hobea da”

Gorabeherak beti egoten dira baina orokorrean ondo. Ni ondo manejatzen naiz hemen.

FAMILIKOAK ETORTZEN ZAIZKIZU BISITAZERA?

Ni askotan joaten naiz Leitza eta Iruñean ditudan familikoak bisita-

tzera eta eurak ere etortzen dira hona.

ZER EGITEN DUZU EGOITZAN EGUN BATEAN?


Goizetan jaiki eta neure burua txukundu. Gero gosalduta eta telebista apur batean ikusi ondoren kaletik buelta bat ematen dut. Arratsaldean bazkaldu ostean ere pasioan joaten naiz, Galartza, Mendiola edo eta hemen kalean bestela.

KOADRILARIK BADUZU ARETXABALETAN?

Bai baina koadrilatik alde eginda nago txikiteoari utzi diot eta. ARETXABALETAKO PARAJEETATIK ZEIN GUSTATZEN ZAIZU GEHIEN? Aretxabaleta oso herri polita da, hau moduko parajerik ez dago hasi Gatzatik eta Eibarreraino artean. Egoitza ingurua bera ere oso polita da.

ZEINTZUK DIRA ZURE AFIZIOAK?

Kantatzea eta kartetan jokatzeta, pasiatzea ere gustatzen zait.



Mikel Roldanek klasika Donostia-97 proba pre-mundialean garaipena lortu zuen

Berri pozgarriak dira azkenaldi honetan Mikel Roldanen inguruan heldu zaizkigunak. Oraingo honetan beste garaipen garrantzitsu bat lortu zuen Bergaran korritu zen jubencil mailako Klasika Donostia-97 proba pre-mundialean.

Bergaran hasi zen ibilbidea eta 140 km-takoa zen egin beharreko itzulia. Guztira 210 txirrindularik parte hartu zuten.


Fagor taldeko txirrindulariak Asen-



Emaitza onak lortzen ari da Mikel Roldan

sio gainean ihes egitea lortu zuen. Hortik helmugaraino zeuden 19 Km.tan bakarrik joan zen Bergaran garaipena lortu zuen arte.

Karrera hau datorren urtean Donostian korrituko den Munduko kopako aurre-proba bat izan da.



Kangchenjunga espedizioa gailurrera heldu ezinean

Eguraldi txarrak alde batetik eta osasun egoerak bestetik galerazi die Kangchenjunga 96 espediziokoei aste honetan pentsatuta zuten moduan gailurrerako bidea egitea. Gorantz egin beharrean kanpo basera jeitsi beharrean izan ziren martizenean eguraldi txarra zela eta. Osasun egoera ere ez zuten batere ona, Alberto zen denetatik ondoen zegoena baina beste hirurak erdi gaixotuta. Felix eztarik min haundiaz eta sukarrak; Kike de Pablo katarroaz. Gailurrerako eraso atzeratu egin dute mometuz martxoaren 8ra artean. Tarte horretan ahul daudenak indartu eta eguraldiak hobetzen duen itxarongo dute. Hemendik zorterik onena opa diogu espedizioari.

Pelota

Herrien arteko txapelketa jokatu zen pasatu den domekan Iturrigorri frontoian. Aretxabaletako taldea txapelketatik kanpo gelditu zen azpeitiarren aurka galdu ondoren. Emaitzak ondorengoak izan ziren:

Kadeteetan:

Alzola-Lasagabaster	5
Odriozola-Irureta	18

Jubeniletan:

Bartolome-Uriarte	20
Odriozola-Irureta	22

Seniorretan:

Errasti anaiak	12
Otaegi-Bidezabal	22

Partidu hauen ondoren Aretxabaleta herrien arteko txapelketatik kanpo gelditu da eta Azpeitia izango da txapelketan aurrera jarraituko duena.

Futbola

Aretxabaletako preferente mailako taldea 3. aurkitzen da klasifikazioan 54 punturekin. Azkenengo partiduan ordiziarren aurka banako berdinketa lortu zuen. Tolosa dago lehen postuan 60 punturekin eta 2. Mutriku puntu batera. Oraindik 5 partidu gelditzen dira liga amaitzeko eta 15 puntu daude jokoan. Tolosa oso indartsu dago eta hau harrapatzea oso zaila izango da. 2. postua ez dute horren urruti eta promozioa jokatzeko gogor borrokatu beharko dute. Datorren domekan Hondarrabiren aurka neurtuko dituzte indarrak. Partidua Ibarra futbol zelaian izango da arratsaldeko 5etan.

IMANOL JANARI DENDA

Harategia
BEREZIKI Urdaitegia
Fruitategia
Gorbea Kalea ☎ 79 05 83 ARETXABALETA

BP Amaia-Berri, S. L.

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea
Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA

18 urte dira Otala-zelaiko kross-a antolatzeari ekin zitzaionetik



Maiatzaren 5ean egingo da Otala-zelaiko kross-a

Urtero moduan aurten ere Otala-zelaiko kross Herrikoia korrituko da maiatzaren 5ean. 18 urte pasatu dira kross-a antolatzen hasi zenetik eta arrakasta handia duela esan behar da.

Almen K.E. eta UDA dira Aretxabaletako kultura batzordearen laguntzarekin kross-a antolatu dutenak eta dagoeneko

atera dute aurtengo araudia.

Kross-ean edozeinek parte hartu dezake. Gizonzkoetan, seniorrek bi buelta eman beharko diote urtegiari (13,4 Km.). Junior, beterano eta emakumeek barriz, buelta bakarra (6,7 Km.).

Maiatzaren 5ean goizkeo 11etan hasiera emango zaio lasterketari

eta amaiera 12,30etan. Sariak maila bakoitzerako desberdinak dira. Seniorretan esaterako, 1. go saria, 20.000 pzta eta trofeoa; 2. 15.000 pzta eta trofeoa; 3. 10.000 pzta eta trofeoa; 4. 6.000 pzta eta trofeoa; 5. 4.000 pzta eta trofeoa eta 6. saria 3.000 pzta eta trofeoa.

Juniors, beterano eta

emakumeetan, kategoria bakoitzak bere sariak jasoko ditu, horrela 1. goarentzat, 10.000 pzta eta trofeoa egongo da; 2. 6.000 pzta eta trofeoa; 3. 4.000 pzta eta trofeoa eta 4. 3.000 pzta eta trofeoa.

Lasterketan norbaitek Jose Apalanzak 40' eta 59''tan duen errekorra gaindituko balu 25.000 pezetako saria jasoko luke.

Honez gain, partehartzaile guztiek kamiseta bana jasoko dute eta lasterketa amaitzerakoan partehartzaileen artean sari batzuk zozketatuko dira.

Izena ematea apirilaren 29tik maiatzaren 4ra bitartean egin daiteke Aretxabaletako kirol etxean edo eta baita proba hasi baino ordu eta erdi lehenago ere, horretarako 500 pezeta ordainduz.

ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 79 75 42
- MARI KARMEN ZAPATA DENDA 79 59 85
- IRUDI ILEPAINKETA 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 79 31 59
- ARAMAIO OKINDEGIA 79 64 87
- LEINTZ-ROSI 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 79 96 43

ARLUTZ
MITARTE, 16 - ARETXABAETA - TFNOA.: 79 32 34

EGUSKIGRAF
inprimategia
ARETXABAETA
Industrialdea 1-0-4
Tfnoa: 791811
Faxe: 792941



Nerea eta Irati Txiste kontari

Bazan behin baserritar bat ta honek txarrikumiak eukittia gure euen, baine bere problema zera zan txarri arrik ez zeukala ta orduan ezin zittuzten txarrikumaik euki. Egun batian pentsau eban ba zea, goiko baserrixen beozela txarri arrak eta hurrengo egunian kamioien sartu danak ta han itxiko zituela iluntzerarte.

Sartzeittu danak kamioian kostata eta ilunkaran badator txarrixekin beruntza ta bere artien pentzetan dau, "bixer goixien txarrixek eguzkitten badauz, fijo txerri kumak eukiko dittuztela laster, baina keizpetan badaz txarto...." Hurrengo egunien jaikitzen da ta emaztiei galdetzen dutzo:

- Tomasa, nun jasan txarrixek?
- Txarrixek? Keizpetan.

Egun hortan iguala eitten dau; igoteittu, jeisteittu ilunkaran, ta goizien goiz:


- Tomasa, nun jasan txarrixek?
- Txarrixek? Keizpetan.

Berriro igoteittu, iluntzian jeitsi ta hurrengo egunien esnatzen da kriston burrundariaz, batetik bozina zaratia,... ta:

- Tomasa, nun jasan txarrixek?
- Gaur ez jakiat ze zoro haize sartu jatien baina kamioi barruen jakaz danak.



Nerea Lete
(13 urte)



Elkartzen dira bi lagun zahar entierro baten. Baten aita hil egin zen eta esaten dio honen lagunak:

- Ze, aita hilda ezta?
- Bai, bai.
- Ze, gaixo zegoen edo gaizki edo...
- Ez. Begira, nik kontatuko dizut zer gertatu zaion. Ohean zegoen etzanda zigarroa piztuta zuela eta lo hartu zuen.
- A! Orduan erreta hil zen.
- Ez, ez. Erre baino lehenago esnatu egin zen eta korrika leihora abiatu zen.
- A! Orduan leihotik erorita hil zen.
- Ez, ez. Estroposo eginda tentsio altuko kabletan katiatuta geratu zen.
- A! Orduan txitxarroa moduan kixkelduta hil zen.
- Ez. Ez zen kixkaldu. Gero nekatu eta goitik behera erori zen.
- A! Orduan tortila eginda...
- Ez, ez. suhiltzaileak etorrita zeuden eta lona behian jarrita jausi zenean lonan jo eta berriro kabletan geratu zen.
- Eta nola kristo hil zen ba zure aita?
- Azkenian hartu nuen nire eskopeta eta tiro bat bota nion bestela ez zen hilko eta.



Irati Gorostiza
(13 urte)

IRIARTE

Umeen denda



Durana, 8 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 10 96

MEMESA S.L.

Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA

EXPRESS AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

BITXITEGIA

MIREN & ZURINE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 77 13 57

Sebastian de la Fuente

Elena

AUTOZERBITZUA

Murubide z/g ☎ 79 91 76
ARETXABALETA

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9
Tfnoa: 79 19 79



Garai bateko Aretxabaleta ageri da argazkietan. Norbaitek gogoan izango du oraindio ezkerreko argazkian ikusten den ortu saila. Orain Murubide kaleko etxeak eraikita daude bertan. Argazkian azaltzen diren lurrak Otazurenak ziren baina beste batzuk aritzen ziren bertan lanean. Jesus Errasti eta Domingo Uribesalgo "Alkur" zenak esaterako makina bat lan egingo zuten lur sail hoietan. Argazkiaren atzekaldean udaletxeko zuhaitz dotoreak eta haundiak garbi ikusten dira.

Eskumako argazkia zaharragoa da. Horra hor lehenagoko Aretxabaletako sarrera. Hortik eta Santutxuraino Kamineroko etxea bakarrik zegoen. Gainontzekoa zelaia eta ortua zen, ez zegoen beste etxerik. Argazkiko lehenengo erainkuntzan garbi ikusten da Aretxabaleta esaten duen kartela. Edifizio hori sarritan erabili izan zen antzerkiak egiteko eta zinea ere egon zen bertan garai batean. Otazuk lokalaren jabeak pelotan egiteko ere erabiltzen zuen. Horren hurrengo beste erainkuntza baxuago bat zegoen eta Santos Idigorasek puliziorako tailerra zuen bertan. Gaur egun ez da erainkuntza honen arrastorik gelditzen 1976. urte inguruan bota zen eta gaur egun Murubideko etxebizitzak daude bertan eraikita.

BEIRALAN

KRISTALDEGIA
Loramendi 10 ☎ 79 81 78
Aretxabaleta

GARBITU S. KOOP

**Garbiketa
orokorrak**

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

**JOSU
HARATEGIA**

Urdaitegia-Gozotegia
Kroasantegia
"Janari prestatuak"

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08
ARETXABALETA



**FELIX
PAGALDAY**

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33
Etxekoa: 79 42 56

Euskaldunak Ameriketara



M.J. Aretxaga

Garai batean euskaldun asko joaten zen Ameriketara artzai lanak egitera eta oso preziatuak ziren gainera. Oraingo honetan kantuan ere ondo moldatzen direla erakutsi dute **Aretxabaletako gregoriano korokoek** Ameriketa aldean. Abestu duten leku guztietan arrakasta haundia lortu dute. Pozik eta gustora itzuli dira etxera. Emakumeak behintzat majo ibili dira gizonezkoek entsaiatu eta kantatzen zuten bitartean. Bazen ordua, gizonezkoek lan egin eta emakumeek atsedena hartzeko.

Murrukixoko Mendi Elkartekoak ere fin ibili dira. Argazki lehiaketa dela eta liburuxka txukun bat kaleratu dute. Lehiaketako irabazlea Aretxabaletan bizi den **Joseba Egibar** izan da eta lehen atxabaltarra **Iñaki Galdos**. Lehiaketako epaile lanak egin dituztenak, **Pedro Zugasti**, **Fernando Uribesalgo** eta **Manolo Urtubi** izan dira.

Baina ez dira hauek **Murrukixotik** datozen abiste bakarrak. Maiatzaren 11n talde honetako lagun batzuk 1931. urtean **Pedro Aranbarri "Gorriña"** ezizenez ezaguna zenak jarritako marka hobetzen saiatuko dira. Aretxabaletatik Aizkorrirako joan-etorria 7 ordu baino gutxiagotan egitea hain zuzen ere.

Record-a gaintu duen atxabaltar bat **Andoni Zubizarreta** izan da. Lehen mailan partidu gehien jokatu dituen futbolista da, 562 partidu danera.

Kirol kontuekin jarraituz, fin aritu den beste atxabaltar bat **Igor Arenaza** Eibar futbol taldeko jokalaria da. Pasatu den domekan berak sartu zuen Eibarreko gol bakarra. Gustora gelditzeko modukoa.

Larriñoko soziedadekoek ere gustora gelditzeko moduko afaria egin zuten **Lizaso** eta **Murua** bertsolariekin. Edarto pasatu zuten bi bertsolari hauen okurrentziekin.

Aretxabaletako talde antimilitaristakoak ere ez daude geldi egoteko eta aurreko zapatuan Martutenera martxa antolatu zuten bertan dauden presoan askatasuna eskatuz.

Bukatzer a noa, nire leihotik eguraldi ederra dagoela ikusten dut eta horrelako eguraldia opa diet **kangchenjunga** inguruan dauden atxabaltarrei. Aber ba, hurrengo saioan euren helburua lortzen duten.

ARETXAZOKA

- Valdezate taberna inguruan giltza batzuk galdu dira. Bizkaiko Foru Aldundia dioen naruzko giltzatakooz. Deitu 79 01 05 telefonora.

- Edurra egin zuen egunetan urrezko eraztun bat galdu zen. Juanjo izena jartzen du. Norbaitek topatu badu deitu 79 04 96 telefonora eta Carigatik galdetu.

Orrialde honetako iragarkiak dohainik dira. Testua idatzi eta bidali Kultur etxean dagoen buzoira edo eta deitu 79 01 05 telefonora.

LANA

- Matematikak emango lituzkeen norbait behar da. (2. REM). Deitu 79 30 84 telefonora arratsaldez hobe.

- Emakume euskalduna eskaintzen da ordu batzuk lan egiteko. Tfnoa: 79 43 63

- Euskeraz, ingelesez, gazteleraz eta beste hizkuntza batzuetan ipuin pertsonalizatuak idazten dira. Tfnoa: 79 47 54.

- Umeak edo zaharrak zainduko nituzke edo eta ordu batzutarako lanak egingo nituzke.

ETXEBIZITZA

- Pisu salgai dago Durana kalean 33. zenbakian (3. solairua eskuma). Telefonoa 79 64 93. (Eguer-dian eta arratsaldean).

- Laredon uztailean apartamentu bat alokagai dago. Telefonoa: 79 52 80.

- 82 m²-ko lokala salgai. Hiru horma kaleruntza begira ditu eta ez du zutaberik. Lokala Loramendi 10ean dago. Telefonoa: 79 01 17

- Pisu bat salgai dago. 83 m² ditu eta altzariz jantzia. Solohaundi kaleko 25. zenbakian. (3. pisua eskuma). Telefonoa: 79 45 31.


- Garaje bat alokagai dago. Santa Kurtz kaleko 24. zenbakian. Lurrazpiko lehenengo pisuan. Telefonoa: 79 05 28

- Logela bat salgai dago. Erosi berria da. Bi ohe tolesgarri ditu, erropentzako bi armairu, eta espi lodun apalategia. Armairuaren neurria, 3,46 metro zabaleran eta 2,4 metro altueran da. Harremantarako telefonoa: 79 57 07 da eta Pauligatik galdetu.



Mari Jose Etxebarriarteun

“Tabernari lana oso lotua da”



Mari Jose izango da herriko jubilatua ondoko ezagutzen dituen. 10 urte daramatza Basotxon jubilatuen tabernan lanean.

“Gustora nago Basotxon lanean baina nahiago izango nuke lantegi batean lan egitea, tabernari lana oso lotua da eta”.

• **Zer du ona tabernari lanak eta zer txarra?**

Ona lagun asko ezagutzen duzuna eta txarra oso lotua dena.

• **Tabarra asko ematen dute jubilatuek?**

Ez, ez dute ematen.

• **Zer egiten dute jubilatuek Basotxon?**

Kartaka asko jolasten dute behintzat.

• **Egoitzakoak askotan etortzen dira hona?**

Bai etortzen dira.

• **Umore ona dute jubilatuek?**

Bai ona dute.

• **Noiz egoten da taberna bete?**

Domeka arratsaldetan.

• **Udaberriak zer du polita?**

Eguraldi hobea egiten duena.

• **Zein da hemen inguruko lekurik politena?**

Urkulu.

• **Munduan zein leku bisitatzea gustatuko litzaizuke?**

Mexiko. Egonda nago baina osterara ere joango nintzateke.

• **Beldurra zeri diozu?**

Osasunaren aldetik mina izateari eta bakardadeari ere bai.

• **Armozatu zer?**

Cola Cao esneaz.

• **Desio bat...**

Beste lan seguru bat izatea.

• **Eduki duzun azken ametsa?**

Ez naiz gogoratzen.

• **Lagunekin noiz elkartzen zara?**

Goizetan kafea hartzen joaten garenean

• **Tabernak izteko ordutegiari ondo deritzozu?**

Bai, ondo deritzot.

• **Telebistako zein programa duzu gustoko?**

Ez dut telebista asko ikusten.

• **Mutil batek zelakoa izan behar du zure gustokoa izateko?**

Pertsona ona eta jatorra baina zaila da esatea.



LA RED

Angela Bennett-en existentziako ezaugarri bakoitza informatizatuta dago. Sistema desberdinak ikertzen ditu, bere denbora anomaliak ezereztatuz edo eta sistemetan birus informatikoak aurkitzen pasatzen du. Bere eguneroko lanean pozik bizi da. Baina egun batean Interneteko programa batean sartzen da. Honek Erreserba Federaleko eta Energia Atomikoko komisioko datuetara sartzeko aukera ematen dio. Programa misteriosua ikertzen duenean mundu arriskutsu baten barrena sartzen da.

Zuzendaria: Irwin Winkler.


Aktoreak: Sandra Mullock, Jeremy Northam, Dennis Miller, Diane Baker, Ken Howard.

JUMANJI

Alan mutil gazteak 12 urte dituenean, Jumanji izeneko jokatzeko tabla apaindu bat aurkitzen du. Sarah bere laguna jolasteko konbentzitzen du eta berehala gauza arraroak gertatzen hasten dira. Alanek numero konkretu bat esaten duenean tablak irentsi egiten du. 26 urte beranduago Judy eta Peterrek Jumanji jokua aurkitzen dute bere izebak alokatutako etxe barrian. Umeak jolasten hasten dira eta Alan Jumanjiren mundutik askatzen dute. Gero Sarah ere aurkitu behar dute.

Zuzendaria: Joe Johnston

Aktoreak: Robin Williams, Adam Hann-Byrd, Bonnie Hunt, Laura Bell-Bundy, Kirsten Dunst, Bradley Pierce.



ARGİ-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Zigarrola, 1 8. pabiloia
ARRASATE Tfnoa: 77 11 30



BASTER-ALDE JATETXEA

SASOIKO JAKIAK
GIRO ONENEAN

Galartza auzoa Tfnoa: 79 24 58 ARETXABALETA

BERGARA



Apirilak 27

LABEGARAIETAKO JAIK

LABEGARAIETAKO I. HERRI KROSS-A
Arratsaldeko 6etan.

ROCK JAIALDIA
PIPERRAK, LATZEN, ETSIAK, MANOLO KABEZABOLO
eta **ANIMALES MUERTOS** taldeekin. Gaueko 11etan.

Apirilak 28 domeka

TXIRRINDULARI FROGA
XXXIV. TXIRRINDULARI FROGA. "Labegaraietako saria". Goizeko 9etan.

III. HERRI AFARIA
Josu eta Jokin trikitilariekin.


OÑATI



Apirilak 27

KANTALDIA
"RORY MCLEOD" gaueko 10,30etan Santa Ana Antzokian.

ARRASATE



Apirilak 27

HAURRENTZAKO FILMEA

"El guardia de las palabras" filmea Monferron kultur etxean arratsaldeko 5etan.

ANTZERKIA

Trasposos y J.P. taldearen eskutik "PASARELA". Amaia Antzokian gaueko 10,30etan.

Apirilak 28 domeka

KONTZERTUA

Arrasate Musikalek antolatuta eta **IZASKUN MUNGIAREN OROIMENEZ** Amaia Antzokian arratsaldeko 8etan.

Apirilak 26-Maiatzak 1

SAN ANDRES AUZOKO JAIK

Apirilak 29-Maiatzak 5

ERAKUSKETA

Mª Jesus Vazquez-en eskulanak ikusgai izango dira Monferron kultur etxean.

Maiatzak 6tik 10era

MENDIKO ASTEA

Besaide Mendi Elkarteak antolatuta MENDIKO ASTEA izango da maiatzaren 6tik 10era bitartean. Mendiaren inguruko hitzaldi desberdinak emango dira. 6, 8 eta 10 egunetan Monferron kultur etxean eta 7 eta 9 egunetan udaletxeke pleno aretoan, 7,30etatik aurrera.



GARAGE NORTE S.L.

Zerbitzu Ofiziala

Basabe Poligonoa, A-1-3

Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86

ARETXABALETA

ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK



MENDIOLA ERRETEGIA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita

Tfnoa: 71 43 45

ESKORIATZA



**BEHARREZKO
TELEFONOAK**

Apirilak 19-26

ARGAZKI ERAKUSKETA

Murrukixo Mendi Elkarfeak

antolatutako IX. argazki lehiaketara aurkeztutako argazki onenak ikusgai izango dira udaletxeko ganbaran.

Apirilak 26 eguakotxa

ZINEA

“LA RED” pelikula Zaraia zineman gaueko 10,15etan.

Apirilak 27 zapatua

**ELKARTEEN ARTEKO MUS TXAPELKETA
FINALA**

Arratsaldeko 4retan ekinda Larrinoko Elkarfean.

ZINEA

“LA RED” pelikula Zaraia zineman arratsaldeko 7,30etan eta gaueko 10,15etan.

Apirilak 28 domeka

IPARLA-RA MENDI IRTEERA

Murrukixo M. Elkarfeak Iparlara mendi irteera

antolatu du. Irteera ordua goizeko 7,30etan izango da. Arlutzen eman behar da izena. Bazkideek 800 pezeta, bazkide ez direnek 1000 pezeta eta gazteak dohain.

ALBEIZ-ERA MENDI IRTEERA

Zaraia Mendi Taldeak Albeiz-era

egingo du mendi irteera.

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Elgoibar-Deba-Aretxabaleta. Guztira 84 km.

UMEENTZAKO ZINEA

“EL NIÑO INVISIBLE” pelikula Zaraia zineman arratsaldeko 5etan.

ZINEA

“LA RED” pelikula Zaraia zineman arratsaldeko 7,30etan eta gaueko 10,15etan.

Apirilak 29 astelehena

ZINEA

“LA RED” pelikula Zaraia zineman gaueko 10,15etan.

Maiatzak 3 eguakotxa

ZINEA

“JUMANJI” pelikula Zaraia zineman gaueko 10,15etan.

Maiatzak 4 zapatua

ZINEA

“JUMANJI” pelikula Zaraia zineman arratsaldeko 7,30etan eta gaueko 10,15etan.

Maiatzak 5 domeka

**XVIII. OTALA-ZELAIKO KROSS
HERRIKOIA**

Otala-zelaiko krossa goizeko 11etan hasiko da Urkuluko urtegi inguruan.

ZINEA

“JUMANJI” pelikula Zaraia zineman arratsaldeko 5etan, 7,30etan eta gaueko 10,15etan.

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Eskoriatza-Zigarrola-Epele-Elorrio-Durango-Urkiola-Otxandiano-Landa-Aretxabaleta. Guztira 82 km.

Maiatzak 6 astelehena

ZINEA

“JUMANJI” pelikula Zaraia zineman gaueko 10,15etan.

Maiatzak 12 domeka

HERRI URRATS

Aurten Senpere Kanboko Xalbador ikastegiak antolaturik eta “Ametsa baino gehiago” lemapean.

Loramendi Elkarfeak antolatuta autobusa izango da deitu 77 09 70 telefonora.

Aretxabaleta

• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Euskaltegia	79 21 68
• Posttxea	79 28 31
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Kiroletxea	79 64 61
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Basotxo	77 09 81
• Urats Gain	79 99 11
• Osasun zentroa	79 74 58
• Hezibide Elkarfeak	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Liburutegia	79 10 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Loramendi K.E.	77 09 70
• Murrukixo M.E.	79 93 74
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• ALMEN	71 49 64
• Otalora	79 79 99
• Ludoteka	79 05 81
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortazar	79 01 84
• Aretxagazeta	79 01 05

Udaltzaingoa

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	76 14 69
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

Denetarik

• Eskualde-Ospitala (Arrasate)	79 53 00
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• Renfe (Gasteiz)	23 20 30
• Pesa (Arrasate)	79 14 19
• Larrialdia (Arrasate)	77 10 43
• SOS Deiak	088

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETAKO



Basabe Poligonoa A-15
79 34 28

ARETXABALETAKO

J.J

ITURGINTZA

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

Mondeo


"Teknologia aurreratuenak eta edertasunak bat egiten dutenean sortzen da..."

Badaude teknologia aurreratuenak bakarrik eskain ditzakeen plazerrik. Mondeo TurboTec serie berria gidatzearen modukoak. Neurrira egingako motoreak gidatzea eta gozatzea bat izan daitezten. Zeharkako injekziodun 1.8 litro Intercoolerraz. 88 zaldi-ingar: 178 Nm minutuko 2.000 reboluziora. Ekologia arloan araudi zorrotza gaintitzen duen motorea. Mondeo Diesel TurboTec berria martxan jarri bezain laster

sentsazio berriak aurkitzen ditugu. Mondeo baten segurtasun osoak babesten gaitu: Airbag-a seriean, alboetako babesgailu gogortuak, chasis tinkoa, direkzioaren zutabe indartua, gerriko aurretenkatuak, eserleku labangaitzak... Mondeo Diesel TurboTec serie berriak zure eskura jartzen ditu plazer berriak. Prestazioak. Segurtasunak. Ekonomiak. Baina batez ere, Mondeo bat gidatzearen plazer.

... Mondeo Diesel TurboTec serie berria.

Jar zaitez Mondeo baten inolako konpromezu barik.
Gusto handiz hartuko zaitugu.



MUGARRI

Araba Etorbidea, z/g ARRASATE
Tfnoa: 79 07 44

